



EUSKARALDIA



**EUSKARAK
365
EGUN**

**HAMAIIKA EGUN BAINO
HAMAIIKA ALDIZ GEHIAGO!**


**euskARALDIA UDALERRI euskALDUNETAN
LANTZEKO PROPOSAMEN OSAGARRIA**



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

AURKIBIDEA:

Euskaraldia	3
Euskaraldia udalerrri euskaldunetan	4
1. Hedabideak	5
2. Internet, sare sozialak, telefonoa...	7
3. Lantokia edo eskola	9
4. Aisialdia	11
5. Kalea. Parkea, plaza, frontoia...	13
6. Zerbitzuak: merkataritza, ostalaritza eta gainerakoak	15
7. Hornitzaileak: fakturak, jakinarazpenak...	17
8. Zerbitzu publikoak	19
9. Etxeko hizkuntza	21
10. Kultura: liburuak, musika, zinema, antzerkia...	23
11. Ezina ekinez egina: zenbait bidelagun	25
Lanerako irizpideak eta argibideak, udalentsat zein herrietako batzordeentzat	27



euskaRaldia

HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETAN Lan EGITEA HELBURU DUEN EGITASMOA

· 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da lehen Euskaraldia, **11 egun euskaraz** lelopean.

·Euskaraz hitz egin eta ulertzen dute herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu Euskaraldiak, baita era guztietako entitateak euskarazko hizkuntza praktikak babesteko neurriak hartzera bultzatzea ere.

· Azken bi urteetan hainbat herritan martxan izan diren dinamikak euskararen lurralde osora zabaldu nahi dituzte antolatzaileek.

· Hainbat erakundek eta gizarte eragilek elkarlanean aurkeztu dute euskal hiztunak aktibatzea helburu duen ekimena.



UDALERRI EUSKALDUNETAN

**HAMAIKA EGUN BAINO
HAMAIKA ALDIZ GEHIAGO!**

Euskaraldia euskararen lurralde osorako pentsatuta dagoen ekimena da, baina udalerrri euskaldunen errealtate soziolinguistikoak bere berezitasunak ditu.

Hainbat udalerrri euskaldunetan, hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimena erabat beharrezkoa da, batez ere euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea nahi baino handiagoa den herrietan. Udalerririk euskaldunetan, ordea, Euskaraldiaren ohiko dinamikaz gain, areago joateko beharra ere nabarmendu dute bateko eta besteko eragileek, batez ere euskararen erabilera altua den udalerrietan. Euskararen arnaguneetan, alegia. Herri horietan, euskaraz aritzea erabat naturala eta ohikoa denez, Euskaraldia hizkuntza ohituren inguruan areago hausnartzeko baliagarria izan daiteke.

Horregatik, udalerrri euskaldunetako teknikariek eta eragileekin gaia landu ostean, **Hamaika egun baino hamaika aldiz gehiago!** proposamena osatu du UEMAK, udalerrri euskaldunetan osagarri gisara lantzeko, Euskaraldiaren ohiko dinamikarekin batera.

Proposamen osagarriaren funtsa, hamaika egunetan hamaika alor lantzea da, bakoitzaren inguruan hamaika konturen inguruan hausnartzeko, hutsuneak ikusarazteko, jokaera eredugarriak nabarmentzeko, edota hamaika konpromiso hartzeko, maila pertsonalean zein kolektiboan.

Azken batean, udalerrri euskaldunetan euskaraz hitz egiten dugu oro har eguneroko jardunean. Beraz, oraindik erdaraz aritzen garen esparruetako hizkuntza ohiturak aldatzeaz gain, hamaika aldiz areago joateko beharra daukagu. Hamaika aldiz gehiago hausnartzeko. Egun bakoitzean arlo bati begiratu, benetan euskaraz bizi garen aztertzeko hamaika hausnarketa egin, eta horietan ere hizkuntza ohiturak aldatzeko ideiak eta ekimenak jarri mahai gainean. Hamaika egiteko arlo bakoitzean, hamaika aldiz gehiago izan gaitezen aurrerantzean ere.



1. Hedabideak

AZTERTZEKO ARLOA

Munduari begiratzeko hautatzen ditugun leihoak dira hedabideak. Izan ere, hizkuntza batean edo bestean, hedabideek munduari begiratzeko modu ezberdinak erakusten dizkigute.

Euskaldunak izan arren, egunkariak, telebista, irratia, aldizkariak, podcastak... eta ohiko hedabideak oro har zein hizkuntzatan kontsumitzen ditugun aztertu nahi dugu alor honi buruz ari garenean. Erabaki pertsonaletatik hasita, herrian eragiten duten erabaki zabala-goetara begira jarrita: leku publikoetan, ostalaritzan, zerbitzuetan, administrazioan, eta abar.



ISPILUARI BEGIRA

ETXEAN: Informazioa eskuratzeko ohituren inguruko hausnarketa egin.

Hedabideak etengabe kontsumitzen ditugu: etxean edo autoan irratia piztuta daukagunean, telebistaren aurrean gaudenean, aldizkariak irakurtzen ditugunean, egunkaria zabaltzen dugunean, irratsaio gustukoenen podcastak entzuten ditugunean. Baina zein hizkuntzatan irakurtzen, ikusten edo entzuten ditugu oro har?

GALDERAK:

- > Telebista, oro har, euskaraz ikusten al dut?
- > Ezagutzen al ditut euskarazko telebistak? Tokikoak, zein gainerakoak: ETB1, ETB3, Hamaika Telebista...
- > Zein dira entzuten ditudan irratia? Euskarazko eskaintza ezagutzen al dut? Entzuten al dut?
- > Zein dira oro har irakurtzen ditudan aldizkariak? Euskarazko aldizkaririk erosten al dut? Eta beste hizkuntzetan? Ez badut erosten euskarazkorik, zergatik hautatzen dut erdarazko beste aldizkariren bat? Ez al dago eskaintza bera euskaraz?
- > Kirolari buruzko informazioa gustukoa baldin baduzu, zein hizkuntzatan irakurtzen duzu oro har?

KALEAN: Leku publikoetako hedabideen eskaintza aztertu

Leku publikoetako hizkuntza paisaiaren osagarri garrantzitsuak dira hedabideak. Tabernetan dauden egunkariak, osasun etxean dauden aldizkariak, autobusean jarrita egon ohi den irratia, batean edo bestean piztuta egoten diren telebistak, udalak non argitaratzen dituen iragarki ofizialak, eta abar.

GALDERAK:

- > Herriko tabernetan ohikoa al da euskarazko hedabideak aurkitzea? Egunkariak, aldizkariak, irratia euskaraz, telebista euskaraz...
- > Leku publikoetan euskarazko hedabideak gailentzen al dira? Euskarazko irratia, euskarazko egunkariak edo aldizkariak...
- > Udalak oro har euskarazko hedabideak hautatzen al ditu iragarki ofizialak, publizitate instituzionala edota eskelak jartzeko?



ALORRA:

HEDABIDEAK

Helburua:

Maila pertsonalean zein kolektiboan hedabideak zein hizkuntzatan kontsumitzen ditugun hausnartzea, eta ahal bada hizkuntza ohiturak aldatzea, euskarazko hedabideak gailendu daitezten.

Aztergaiak:

Egunkariak, aldizkariak, irriatiak, telebista, podcastak...

Eremua: etxea, leku publikoak, lantokia...

Ardua:

Askotarikoa: pertsonala, kolektiboa zein erakunde publikoena.

Urratsak:

- Udala, taberna, etxea, lantokia: harpidetu euskarazko aldizkari edo egunkariren batera.
- Lehenetsi euskarazko hedabideak, baita publizitate instituzionalean eta iragarkietan ere.
- Ezagutarazi euskaraz lan egiten duten herriko kazetariak.

ERAGIN BURUARI

TOKIKO HEDABIDEAK

- Herrian ba al datokiko hedabiderik? Herrialdizkaria, telebista, irratia...
- Zein hizkuntzatan aritzen da?

KAZETARIAK

- Herrian ba al da kazetaririk? Zein hedabidetan egiten du lan? Euskarazko hedabideetan nabarmendu delako al da ezaguna?

TELEBISTA

- Telebistako aurkezle edo esatari ezagunik ba al da herrian? Zein hizkuntzatan egin du bide profesionala?

EUSKARAZ BIZI GARA, BAINA ERDARAZ HIL?

- Eskelak zein egunkaritan eta zein hizkuntzan argitaratzen edo irakurtzen ditugu oro har?

KIROL INFORMAZIOA

- Zein hizkuntzatan ikusten edo entzuten dituzu gustuko taldearen partidak?
- Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu oro har kirol informazioa.
- Ezagutzen al duzu kirola euskaraz lantzen duen hedabiderik? Sasoian, Harmaila...



I+D
IDEIAK

- Herriko leku edo taberna esanguratsuetan euskarazko hedabideak egon daitezen harpidetza kanpaina sustatu.

- Herriko leku edo taberna esanguratsuetara gutuna bidali, edo arduradunekin bilera egin, euskarazko hedabideak egotearen garrantzia ikusaraziz.

- Egun zehatz batean, edo Euskaraldian zehar, euskarazko egunkariak, aldizkariak eta hedabideak erosteko kanpaina egin.

2. Internet, sareak, telefonoa...

AZTERTZEKO ARLOA

Teknologia berriek erabat eraldatu dute azken urteotan herritarren arteko komunikazioa. Bereziki belaunaldi gazteen artean, baina baita helduen artean ere: telefonoa, aplikazioak, whatsapp eta antzeko mezularitza aplikazioak...

Interneteko edukiak zein hizkuntzatan kontsumitzen ditugun ere aztertzea da, edo herriko eragileek, elkarteek, enpresek eta abar webguneak zein hizkuntzatan dituzten ere. Herrian zenbat webgune daude erregistratuta? Horietako zenbat dira euskaraz? Zenbatek dute .eus domeinua. Sare sozialetan zein hizkuntzatan aritzen gara? Zein da hartzailea eta, beraz, zein hizkuntza hautatzen dugu?



ISPILUARI BEGIRA

SARE SOZIALAK: askorentzat, plazarik ohikoena da gaur egun. Zein hizkuntzatan aritzen gara ordea?

Twitter, Instagram, Facebook, Youtube, Whatsapp, Telegram... eta antzeko gehienek ez dituzte hamar urte baino gehiago. Gehien bizitzetan ia ezinbesteko sareak edo aplikazioak bihurtu dira, eta plazarik ohikoenak dira askorentzat. Zein hizkuntzatan aritzen garen beste kontu bat da, ordea.

GALDERAK:

- > Sare sozialetan zein da gure ohiko hizkuntza? Idazten dugunean, zein hizkuntzatan aritzen gara?
- > Partekatzen ditugun estekak, oro har, zein hizkuntzatan dauden albiste edo webguneetakoak dira?
- > Whatsapp, Telegram eta antzeko mezularitza aplikazioetan, oro har, zein da hautatzen dugun hizkuntza? Euskaraz aritzen gara?
- > Youtube eta antzekoetatik jasotzen ditugun edukiak, zein hizkuntzatan ikusten ditugu?
- > Lanerako edo ikasketetarako wikipedia edo antzekoak erabiltzen ditugunean, zein hizkuntzatan dauden edukiak erabiltzen ditugu?

WEBGUNEAK: herriko elkarteetan, eragileen eta enpresen webguneak. Euskaraz al daude?

Herriko erakundeetan, tabernetan, elkarteetan, enpresen eta antzekoen webguneak euskaraz al daude? Zein hizkuntza lehenesten dute webgunean?

GALDERAK:

- > Herrian zenbat webgunea daude erregistratuta?
- > Horietako zenbat daude euskaraz?
- > Zenbatek dute .eus domeinua?



ERAGIN BURUARI

Sare sozialak

- Zein hizkuntza lehenesten dugu sare bideetan?
- Facebook, Instagram, Twitter eta abar. Zein da gure iturria edo hartzailea sare bideetan, eta zein hizkuntzatan aritzen dira?
- Whatsapp, Telegram eta antzeko mezularitza aplikazioetan, zein hizkuntza lehenesten dugu oro har? Euskaraz aritzen al gara euskaldunen artean?

ERREFERENTZIAK

- Herritar ezagunek zein hizkuntza erabiltzen dute sarean?
- Herriko talde, elkarte, taberna, denda, enpresa eta antzekoek zein hizkuntzatan aritzen dira sarean?
- Zein dira herriko eskolen hizkuntza ohiturak sarean? Zein hizkuntzatan dituzten webguneak? Zein lehenesten dute?

Webguneak

- Oro har, zein da herriko webguneen hizkuntza? Euskaraz al daude?
- Herrian erregistratutako zenbat webgunek dute .eus domeinua?

ERAKUNDE PUBLIKOAK: UDALAREN IRUDIA

- Udala zein hizkuntzatan aritzen da sare bideetan?
- Zein da udalaren hizkuntza politika webgunean zein sare bideetan informazioa zabaltzerakoan?

ALORRA:

INTERNET

Helburua:

Aztertzea zein den herriko elkarte, enpresa eta eragileen hizkuntza sare sozialetan eta webguneetan, eta ahal bada hizkuntza ohiturak aldatzea.

Aztergaiak:

Herritarren eta herriko eragileen sare bideetako kontuak, eta webguneak.

Eremua: webguneak, sare sozialak eta mezularitza aplikazioak.

ARDURA:

Pertsonala, kolektiboa zein erakunde publikoena.

URRATSAK:

- Aztertu herrian erregistratuta dauden webguneen hizkuntza.
- .eus domeinuaren berri eman.
- Herriko eragileak (erakundeak, elkarteak, negozio pribatuak edota herritar ezagunak) sarean euskaraz aritzeko lanketa berezia.
- Mezularitza aplikazioetan erabiltzen den hizkuntzaren inguruko hausnarketa, eta euskaraz aritzeko konpromisoa.



I+D IDEIAK

- Sare sozialetan euskara sustatzeko ekimenak, zozketak, lehiaketak, eta antzekoak antolatu, udalaren edo herriko eragileen laguntzarekin.
- Herriko denda, taberna, elkarte eta antzekoekin lanketa berezia egin webgunea euskaraz izan dezaten: gutuna bidali, bilera egin...
- .eus domeinuaren aldeko lanketa. Gutuna, bilera... "Nik ere nire udala, elkarte, taldea edo dena delakoa .eus izan dadin nahi dut".
- Whatsapp eta antzekoetan euskaraz aritzeko ohitura bultzatu...

3. LANTOKIA EDO ESKOLA

AZTERTZEKO ARLOA

Ordu asko ematen ditugu gehienok lantokian edo ikasten (batxilergoan, unibertsitatean, lanbide heziketan...). Zein da lankideekin edo ikaskideekin erabiltzen dugun hizkuntza? Erdaraz aritzen garen kasuetan, zergatik jotzen dugu erdarara?

Lanean erdaraz egin behar ditugun kontuak (idatziak, fakturak, txostenak, gutunak, eskaerak...) euskaraz egin daitezke? Saiatu gara inoiz laneko ohituretan eragiten? Langile soilak baldin bagara, badugu aukerarik arduradunengan eragiteko gaiaz hausnartu dezaten? Arduradunak baldin bagara, hizkuntza ohiturak aldatzeko erabakirik hartu dezakegu?



ISPILUARI BEGIRA

ESKOLAN: Irakasleen zein ikasleen HIZKUNTZA OHITURAK.

Gaur egun udalerrri euskaldunetan ikasle guztiak dute euskara hutsean jarduteko aukera. Zein da, ordea, ikasleen arteko hizkuntza? Eta irakasleen artekoa?

GALDERAK:

- > Zein da ikaskideen arteko hizkuntza? Euskaraz aritzen al gara ikasle on artean?
- > Euskara eskolako hizkuntza arautua soilik da, ala kaleko eta ikaskideen arteko hizkuntza naturala?
- > Irakasleen artean, euskaraz aritzen al gara? Ikasleak aurrean daudenean aldatzen al ditugu hizkuntza ohiturak?
- > Irakasleok ba al dugu hizkuntzaren transmisioan dugun arduraren kontzientziarik? Ala ikasgai zehatzen ardura hutsa daukagu?
- > Zein da patioko edo aisialdi orduetako hizkuntza nagusia?
- > Ba da hizkuntza ohituretan eragiten duen erreferente nabarmenik irakasleen edota ikasleen artean?
- > Lanbide heziketako ikasleen edo irakasleen kasuan, aldatzen al dira hizkuntza ohiturak?

LANEAN: Lankideen arteko HIZKUNTZA OHITURAK, LANTOKIKO HIZKUNTZA PAISAIA, Lan HIZKUNTZA...

Lantokian, lankideen arteko hizkuntza ohiturak zein diren, gailentzen den hizkuntza zein den, eta lanean zein hizkuntzatan aritzen garen aztertu daiteke. Zein da hizkuntza bat ala bestea erabiltzearen arrazoa? Lanarekin lotutako hizkuntza, arau soziala, ohitura zehatzak. Aztertu eta eragin.

GALDERAK:

- > Zein da lankideen arteko hizkuntza laneko ohiko jardunean? Lankideekin, atsedean tartetean, hizkuntza aldatetarik ba al da?
- > Gutunak, idatziak, posta elektronikoak, fakturak eta antzekoak, euskaraz idazten al ditugu lanean? Horrela ez bada, ba al dago aukerarik hizkuntza ohiturak aldatzeko?
- > Langile soil bezala, eragin al dezaket hizkuntza aldatzeko alorren batean? Arduradun gisara, hartu al dezaket laneko hizkuntza aldatzeko erabakirik?
- > Lantokiko hizkuntza paisaia nolakoa da? Euskara gailentzen al da?



ERAGIN BURUARI

Lantokian

- Lankideen artean eragiten al du gure jarrerak hizkuntza bat ala beste hautatzeko orduan?
- Zein hizkuntzatan aritzen gara posta elektronikoak, gutunak, eskaerak eta antzekoak idazterakoan? Euskaraz egin al daitezke horiek?
- Erabaki pertsonalak hartu al ditzakegu lankideen edo laneko hizkuntza ohiturak aldatzeko edota euskararen aldekoak izateko?
- Fakturak, menuak, hornitzaileekiko harremana, eskaintzak, eskaerak eta antzeko guztiak zein hizkuntzatan egiten ditugu?

Eskolan

- Ikasleen artean, zein da ohiko hizkuntza?
- Euskaraz eskolarekin eta hezkuntza arautuarekin estuki lotuta dagoen hizkuntza da, ala kaleko eta herriko hizkuntza naturala da zuretzat?
- Irakasleen artean, zein da ohiko hizkuntza?
- Ikasleen aurrean berriaz eta kontzientziaz aritzen dira irakasleak euskaraz, ala berezko hizkuntza naturala da irakasleen artean?

ALORRA:

LANTOKIA edo ESKOLA

HELBURUA:

Lankide edo ikaskideekin nola aritzen garen aztertzea, eta behar balitz hizkuntza ohiturak aldatzea.

AZTERGAIAK:

Ikaskideekin edo lankideekin ditugun hizkuntza ohiturak.

Eremua: eskola edo lantokia.

ARDURA:

Oro har, pertsonala.

URRATSAK:

· Hizkuntza ohituretan eragiteko, euskarari eusteko konpromisoa.

Ardura handiko lana da nire ustez daukaguna, irakaslea ez baita ikaslearen laguna. Honetara iristeko nor izan da erruduna? Ikastolan falta bada kontzientzi euskalduna hemen egin behar dugu geuk egin dezakeguna. Buenos dias-ka ezin da hasi guretzat eguna eta nolakoa izango da gure etorkizuna haurrei eskatuz gero geuk egiten ez duguna.

Aitor Sarriegi, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean



I+D
IDELAK

- Lankideen edo ikaskideen artean euskarari eusteko eta ahobizi izateko konpromiso zehatza hartu.

- Konpromisoari eta erabakiari buruz hitz egin lantokian edo eskolan, lankideak eta ikaskideak ere hizkuntza ohiturak aldatzera gonbidatuz, behar den kasuetan.

- Euskaraz bizitzea hautatu duten herritarren hitzaldiak edo antzekoak antolatu, argudioak jendarteratzeko.

4. AISIALDIA

AZTERTZEKO ARLOA

Aisialdiko aukera zabala daukagu gure herrietan, baina horietako alor asko ez dira euskaraz eskaintzen oraindik. Kirola, ikastaroak, formakuntza eta antzekoak herritarren artean euskara naturalki transmititzeko bitarteko egokiak dira, baina udalerrri euskaldunetan bizi garen arren, zein da eskaintza zabal horren hizkuntza nagusia?

Zein da hizkuntza ohitura kirol ezberdinetako eskaintzan eta entrenamenduetan? Kiroldegian, sukaldaritza ikastaroan, yogan, futbol edo eskubaloit taldean, arraunean, musika eskolan, dantzan, pintura tailerlean, abesbatzan, pilatesen, eta abar...



ISPILUARI BEGIRA

IKASTAROAK: Eskaintza publikoa zein pribatua aztertu.

Kiroldegiko eskaintza zabala da. Baita kulturarekin, garapen pertsonalarekin, parekidetasunarekin, osasunarekin eta beste hainbat alorrekin lotutako ikastaroen eskaintza ere: pintura, marrazketa, yoga, pilates, sukaldaritza, musika, eta abar luzea. Eskaintza publikoan euskara bermatzen al den aztertu daiteke, eta eskaintza pribatuan euskarazko ikastaroak gailendu daitezkeen eragiten ote dugun ala eragin ote dezakegun.

GALDERAK:

- > Zein da herrian dagoen aisialdirako eskaintza? Oro har, euskaraz aritzen al da esparru horietan?
- > Ikastaro publikoak edota pribatuak gailentzen dira? Ikastaro publikoetan euskaraz al dira ikastaro gehienak?
- > Zein da erabiltzen den hizkuntza irizpidea? Euskaraz eman ikastaroa eta behar duten herritarrei itzulpen zerbitzua eskaini? Ala ikastaroa zuzenean gazteleraz ematen da?
- > Ba al da zailtasunik irakasle euskaldunak aurkitzeko alor zehatzen batean?
- > Zein da ikastaroak gazteleraz eskaintzearen arrazoi nagusia?

KIROLA: KIROLDEGIKO ZEIN KIROL TALDEETAKO HIZKUNTZA OHITURAK

Kirola, ia herri guztietan, milaka herritar mugiarazten dituen esparrua da. Kirol taldeen hizkuntza ohiturek eragin nabarmena dute herrian hitz egiten den hizkuntzan. Kirol taldeak eta elkarteak euskaraz aritzen al dira? Kiroldegian ere zein da hizkuntza nagusia? Eta hizkuntza paisaia? Ki

GALDERAK:

- > Kirol taldean, zein hizkuntzatan aritzen gara oro har? Futbol taldean, eskubaloian, arraunean, errugbian, igerian, atletismoan, triatloian... Kirol taldeak eta elkarteak euskaraz aritzen al dira?
- > Kiroldegian zein da hizkuntza nagusia? Nolako da hizkuntza paisaia kiroldegian?
- > Kirol ekitaldiak iragartzeko kartelak zein hizkuntzatan zabaltzen dira? Ekitaldian zehar, zein da hizkuntza nagusia?



ERAGIN BURUARI

KIROLDEGIA

- Kiroldegia aisialdiarekin lotutako herriko gune garrantzitsuenetakoa da. Zein da bertako hizkuntza paisaia? Euskara gailentzen al da?
- Kiroldegiko ikastaroak, euskaraz al dira?
- Ikastaro zehatzetan jartzen den musika, euskal musika al da?

KIROL TALDEAK ETA ELKARTEAK

- Euskara al da hizkuntza nagusia mendi taldean, futbolean, eskubaloian, arraunean, saskibaloian eta abar?
- Erdaraz aritzen garenean, zein da arrazoi nagusia? Euskarari eutsiz gero, hizkuntza ohiturak aldetzeko aukerarik ikusten al duzu?

Oreka PERTSONALA

- Yoga, meditazioa, biodantza, reikia... Euskaraz aritzen al gara esparru horietan ere? Klaseak edo saioak euskaraz al dira? Irakasleen edo ikasleen hizkuntzak ba al du eraginik?

IKASTARO PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK

- Euskaraz ez diren ikastaroek ba al dute babes publikorik?
- Berariaz lagundu al behar dira euskarazko ikastaroak?
- Argazkilaritza, pintura, antzerkia, buztina, dantza, musika eskola edo musika tresna zehatzak... euskarazko eskaintza bermatuta al dago herrian?
- Ikastaro edo hitzaldiren bat hautatzean, ikastaroaren hizkuntza kontuan hartzen al dugu?

ALORRA:

AI SIALDIA

Helburua:

Herriko aisialdi eskaintza aztertea, eta esparru bakoitzeko hizkuntza ohituretan eragitea.

Aztergaiak:

Kirol taldeak eta elkarteak, kiroldegia, aisialdiko ikastaroen eskaintza publikoa zein pribatua...

Eremua: aisialdiarekin lotutako esparruak, kirola eta ikastaroak.

Ardura:

Askotarikoa: pertsonala, kolektiboa zein erakunde publikoena.

Urratsak:

- Euskaraz eskaintzen ez diren ikastaroen arrazoiak aztertu.
- Garapen pertsonalarekin lotutako esparruetan, euskarazko eskaintza bermatzeko ahalegina egin.
- Euskarazko irakasle edo profesionalen eskaintza bermatu ikastaro publikoetan.



I+D
IDEIAK

- Ohiko kirol taldean, elkarteetan edo ikastaroan erabiltzen dugun hizkuntzaren inguruko hausnarketa egin, eta ohiturak aldatzeko konpromisoak hartu daitezkeen aztertu: pertsonalak (ahobiziaz eta belarriprestak) zein kolektiboak (euskarazko eskaintza lehenetsi, jakinarazpenak eta gutunak euskaraz izan daitezzen erabaki, eta abar).

- Entrenatzaileak edo hizlariak edo taldekideak euskara ez dakien kasuetan, aldi bereko itzulpen laburren formularekin ahalegindu.

5. Kalea

AZTERTZEKO ARLOA

Kalea da herriaren bihotza. Kanean sumatzen da herri bat bizirik dagoen, taupaka, ala hiltorian, hutsik eta isilik. Harremanak ehotzen diren lekuen multzoari esaten diogu kalea, orokorrean, baina sare horrek hainbat mataza ditu: parkeak, tabernak, kafetegiak, plazak, azokak, dendak...

Horietan, zein da gure eguneroko jarduna hizkuntzari dagokionean? Norekin eta zergatik aritzen gara erdaraz? Euskararik ez dakiten herritarrak tartean daudelako izaten al da oro har? Ala euskaldunon artean ere erdaraz aritzen gara?



ISPILUARI BEGIRA

PARKEA, PLAZA, FRONTOIA: GURASOAK, HAURREN EREDU AL DIRA? ZEIN DA GURASOEN HIZKUNTZA? ZEIN HAURRENA?

Hizkuntzaren transmisioan garrantzia handia dute haurren aisialdiko orduak. Jolaserako eta lagunarteko ordu horietan, herriaren arabera, parkea, plaza edo frontoia izan ohi da bilgunea. Zein da bertako hizkuntza nagusia?

GALDERAK:

- > Parkean, plazan edo frontoian, euskaraz aritzen al dira haurrak? Euskaraz aritzen ez badira, zergatik da batez ere?
- > Zein da haurrei begira edo haurrak zaintzen dauden guraso edo arduradunen hizkuntza? Erdarara jotzen denean, zergatik izaten da? Euskarari eustea baliagarria ote litzateke guraso batzuen hizkuntza ohiturak aldatzeko?
- > Helduen artean, hizkuntza ohiturak asko aldatzen al dira haurrak haurrean daudenean? Zergatik?
- > Gurasoen artean, erraz eutsiko zenioke euskarari eta belarriprest izateko eskatu guraso erdaldunari? Ala tentsioa sentituko zenuke horrelako zerbait bideratzeko?

TABERNA, KAFETEGIA, DENDA, AZOKA... eta abar: ERDARAZ ARITZEN GARENEAN, ZERGATIK IZATEN DA?

Ohiko tabernan, kafetegian, okindegian, janari dendan, eta antzekoetan nahikoa zehaztuta ditugu hizkuntza ohiturak. Arrazoi bategatik edo besteagatik, euskaraz aritzen gara batzuekin, baina erdarara jotzen dugu beste batzuetan. Zergatik?

GALDERAK:

- > Gazteleraz aritzera ohitu bagara kafetegian edo tabernan zerbitzariarekin, edo okinarekin, edo harakinarekin, zergatik da?
- > Euskarari eutsiz gero, hizkuntza ohitura aldatuko genuke?
- > Euskara ez dakien horri, konfiantzan, proposatuko zenioke belarriprest izateko? Arazorik gabe? Ala tentsioa sortzen dizu eta ez zaizu eroso?



ERAGIN BURUARI

Parkean, plazan, frontoian...

- Haurrentzat eredu izaten dira gurasoak, edo helduak. Zein hizkuntzatan entzuten gaituzte hurrek? Gazteleraz aritzen diren gurasoei esaten al diegu zerbait? Ala naturaltasunez ikusten dugu hurrekin gazteleraz aritzea?
- Zein da lagunen edo koadrilakoen arteko hizkuntza? Gaztelera jotzen badugu, zergatik izaten da? Betidanik izan al da horrela? Edo aldatu da hizkuntza ohitura?

Diskurtsoa, argudioak...

- Haurrak erdaraz entzuten baditugu, zein da gure jarrera?
- Euskaraz egiteko eskatzen edo esaten al diegu?
- Horrela baldin bada, zein da gure argudiotegia?
- Zergatik egin behar dute euskaraz?
- Zer esaten diegu hurrei?
- Konbentzitzen al ditugu edo ba al dugu sinesgarritasunik?
- Zer erantzuten digute?

Kafetegian, tabernan, okindegian...

- Gazteleraz aritzen garen kasuetan, ba al dugu eragiterik hizkuntza ohitura aldatzeko? Nola? Solaskidea konfiantzakoa denean, erraza edo eroso al zaigu aldaketa egitea edo proposatzea?

ALORRA:

KALEA

Helburua:

Hizkuntza ohiturak aldatzea erdaraz aritzen garen esparruetan.

Aztergaiak:

Parkea, taberna, kafetegia, ohiko dendak (okindegia, harategia, janari denda, arrandegia...), azoka eta abar.

Eremua: kaleko ohiko lekuak, leku publikoak.

Ardua:

Pertsonala (hizkuntza ohiturak aldatzeko modua dagoenean), publikoa (euskalduntzea bermatzeko).

Urratsak:

- Parkean, frontoian, plazan eta antzekoetan, gurasoen artean euskarari eusteko kontzientzia.
- Erdaraz hitz egiten diogun zerbitzariari edo dendariari, erdaraz zergatik egiten diogun hausnartzea, eta hizkuntza aldatzeko ahalegina egitea.
- Okerrenera, hitz egiteko gai ez bada, belarriprest izateko proposamena, guk euskarari eusteko.



I+D
IDEIAK

- Euskaraldiak proposatzen dituen ahobizak eta belarriprestak bere horretan aktibatzea eremu hauetan.

- Diskurtsiboki prestatu, hizkuntza ohitura aldatu eta euskaraz zergatik egin behar duten esateko solaskideei zein hurrei.

6. Zerbitzuak, merkataritza eta ostalaritza

AZTERTZEKO ARLOA

Merkataritzak eta ostalaritzak egundoko pisua dute herri baten eguneroko bizitzan. Herriaren tamainaren arabera, baita herrian bertan dauden gainerako zerbitzuek ere: aholkularitzek, hortz-klinikek, bankuek, eta abar.

Horietan guztietan, bezero gisa eragin dezakegu, hizkuntza ohituren arabera hartuz erabakiak, edo euskaraz aritzeko eskatuz. Menuetan euskara dagoen ala ez, paisaia linguistikoan euskara ageri den ala ez, produktuen etiketak euskaraz irakur daitezkeen ala ez, fakturak eta tiketak nola ematen dizkiguten, eta antzekoak aztertuz, eta euskararen aldeko hautua eginez.



ISPILUARI BEGIRA

OSTALARITZA: menuak, kartak, hizkuntza paisaia, eta zerbitzu hizkuntza.

Herriko tabernen hizkuntza ohiturak eta hizkuntza paisaiak herri batean erabiltzen den hizkuntzaren ispilu nabarmena dira oro har. Zaindu beharreko esparrua da.

GALDERAK:

- > Taberna eta jatetxeetan, euskara ere menuan al dago? Kartak, menuak eta antzekoak euskaraz al daude?
- > Euskaraz ez badaude, eskatzen al dugu euskarazkoa? Taberna edo jatetxea hautatzerakoan, kontuan hartzen al dugu euskararekiko duten jarrera?
- > Zerbitzaria euskalduna al da? Euskalduna ez bada, zein da gure jarrera? Erdaraz aritzen gara? Ala euskaraz egiten diogu irribarre handiarekin euskaraz ere munduko jatorrenak garelako erakutsi nahian? Ala zakur aurpegiarekin aritzen gara euskarari eutsita? Zein da jarrera eraginkorrena? Erakutsi al digute ala ikasi al dugu horrelakoetan nola jardun?
- > Noizbait idatzi al dugu erreklamaziorik menua edo zerbitzua euskaraz jaso ez dugulako?

MERKATARITZA eta zerbitzuak: hizkuntza paisaia eta bezeroaren hizkuntza

Herriko dendetan eta zerbitzuei lotutako gainerakoetan (bankuak, hortz-klinikak, aholkularitzak...) euskara lehenesten ote den eta hizkuntza ohituretan nola eragin dezakegun aztertu daiteke.

GALDERAK:

- > Paisaia linguistikoan (merkealdia, eskaintzak, informazioa...), fakturretan, produktuen etiketetan (produktuaren informazioa + osagaien informazioa) eta antzekoetan euskara ageri al da?
- > Zein da zerbitzuaren hizkuntza? Zergatik?



ERAGIN BURUARI

Tabernak eta jatetxeak

- Euskaraz al dago menua? Euskara ageri al da menuan? Ageri ez bada, eskatzen al dugu euskarazkoa?
- Zerbitzariarekin nola aritzen gara?
- Hizkuntza paisaiak zer erakusten du?
- Publizitatea egiten dutenean, zein hizkuntza hautatzen dute? Jaki prestatuak, pizzak etxeraino, kebabak eta antzekoak...

Merkataritza

- Zaintzen al da euskarazko hizkuntza paisaia? Merkealdia, eskaintzak eta abar.
- Publizitatea egiten dutenean, zein hizkuntza hautatzen dute?
- Euskaraz egin al dezakegu dendariarekin?
- Denda berri bat zabaltzen dutenean, jarduera baimena jasotzerakoan, hizkuntza irizpideak ere jasotzen al dituzte? Errotuluak zein hizkuntzatan jarri eta antzekoak?

Zerbitzuak

- Zein da ohiko hizkuntza dentistarengana edo masajistarengana joaten garenean?
- Eskaintzen diguten zerbitzuaren informazioa zein hizkuntzatan irakur dezakegu?
- Zain gauden bitartean egunkariak edo aldizkariak baldin badiugu eskura itxaron-gelan, zein hizkuntzatan daude egunkari edo aldizkari horiek?

ALORRA:

ZERBITZUAK

Helburua:

Hizkuntza paisaia (errotuluak, eskaintzak eta merkealdia, menuak) euskalduntzea, eta zerbitzu hizkuntza euskaraz izatea.

Aztergaiak:

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea.

Eremua: dendak, tabernak, supermerkatuak, hortz-
-klinikak, aholkularitzak, eta abar.

Ardura:

Batez ere, negozio pribatue-
na, eta erakunde publikoena (laguntza eta formakuntza).

Urratsak:

- Bezeroak nahi duen hizkuntza hautatu ahal izatea kalitatearen ezinbesteko giltzarria dela ulerrarazteko ekimenak.
- Euskara menuan edo eskaintzan egon dadin eragitea.
- Erakunde publikoen laguntza (errotuluak eta paisaia linguistikoa euskalduntzeko) eta etengabeko formakuntza ostalari eta merkatarientzat.



I+D
IDEIAK

- Euskara ere menuan edo eskaintzan egon dadin eskatu ostalariei eta merkatariei, euskara bezeroarentzat balio erantsia dela nabarmenduz. Nabarmendu euskara kontuan hartzen dutenak, aitortzarekin.

- Hainbat udalek egin duten lanketa aztertu, argudiotegia prestatu, eta zabaldu merkatarien, ostalarien eta zerbitzu sektoreko profesionalen artean.

- Euskarazko hizkuntza paisaiaren aldeko kanpaina egin.

7. Hornitzaileak:

FAKTURAK, KONTRATUAK ETA ABAR

AZTERTZEKO ARLOA

Eguneroko ohiko zerbitzuak hornitzen dizkigutenekin dugun harremanari eta erabiltzen dugun hizkuntzari buruzko hausnarketa egitea proposatzen da.

Argindar konpainiaren eta gas hornitzailearen fakturak, bankuko jakinarazpenak, telefono konpainiaren kontratuak eta jakinarazpenak, autoaren aseguruak, etxebizitzarekin lotutako kontuak (aseguruak, hipoteka, eskriturak, notaritzak kontuak...) eta antzekoak zein hizkuntzatan jasotzen ditugu? Konpainia edo hornitzaile horiei jakinarazi diegu euskaraz jaso nahi dugula zerbitzua? Erakundeek eta enpresek zertan eragin dezakete?



ISPILUARI BEGIRA

ARLO PRIVATUAN: OHIKO HORNITZAILEEN FAKTURAK ETA JAKINARAZPENAK

Argindar konpainiaren, gas hornitzailearen, telefono konpainiaren eta antzeko ohiko fakturak eta jakinarazpenak zein hizkuntzatan jasotzen ditugun aztertu, eta euskaraz jasotzeko hautua jakinarazi.

GALDERAK:

- > Zein hizkuntzatan jasotzen ditut argindar konpainiaren eta gas hornitzailearen fakturak? Euskaraz eskatuz gero, ematen al dute horretarako aukerarik? Zenbait argindar konpainiak ematen du aukera. Ohiko beste batek, aldiz, ez du ematen. Horren arabera, bada argindar konpainia aldatu duen herritarrik. Inoiz pentsatu al duzu horri buruz?
- > Gas hornitzaileak malguagoak dira, eta eskaintzen dute euskarazko zerbitzua oro har. Baina eskatu ez baduzu, akaso, oraindik gazteleraz jasoko dituzu fakturak eta jakinarazpenak. Aztertu. Begiratu. Eskatu euskarazko zerbitzua.
- > Telefono konpainiaren kontratuak, fakturak, jakinarazpenak eta publizitatea, zein hizkuntzatan jasotzen dituzu? Bezero bezala, jakinarazi al diezu inoiz hornitzaile horiei euskaraz jaso nahi dituzula fakturak eta jakinarazpenak?

ARLO PUBLIKOAN: UDALAK ETA GAINERAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN DUTEN ESKUBIDEA ETA ERAGINA

Erakunde publikoen kasuan, zenbait hornitzaileekin dituzten kontratuak diru kopuru handikoak dira. Hizkuntza hautatzeak eta zerbitzua euskaraz jasotzeak ezinbesteko baldintza izan beharko luke. Erakundeek lortutakoak gero eragina izango baitu herritarrekiko zerbitzuan.

GALDERAK:

- > Hornitzaileei gutun eta eskaera asko bidali izan dizkiete udalari euskaldunek, zerbitzua eta jakinarazpenak euskaraz jasotzeko. Lortzen ez den kasuetan, zein da udalen eta erakundeen jarrera?
- > Guztiek batera eragiteko erabakirik edo politikarik badago? GFA, Eusko Jaurlaritza, UEMA...



ERAGIN BURUARI

ARGINDARRA eta gasa

· Zein hizkuntzatan jasotzen ditut fakturak eta jakinarazpenak? Egin al dut aldatzeko ahaleginik? Egin badut, eta ahalegina hutsala izan bada, aztertu al dut konpainia aldatzea? Euskaraz aritzeko gai diren konpainiak garestiagoak al dira? Ala merkeagoak? Ezagutzen al ditut ditudan aukerak?

Telefono konpainia

· Kontratuak, jakinarazpenak eta fakturak euskaraz al dira? Ez badira, ba al dut euskaraz jasotzeko aukerarik? Zein da zerbitzu hizkuntza? Aldatu ezean, konpainiaz aldatzeko prest al nago? Zer da lehenesten dudana? Prezioa, hizkuntza, zerbitzua, hurbiltasuna...

Internet, telebista...

· Telefono konpainiak eskaintzen dizkigun aparteko zerbitzuen hizkuntza zein da? Telebistan ikusteko saioak, filmak, partidak eta antzekoak, euskaraz al daude?

Udalak eta erakunde publikoak

· Hornitzaileei euskarazko zerbitzua, fakturak eta jakinarazpenak eskatu eta erantzunik jaso ezean, zein da hurrengo urratsa? Noraino jo daiteke? Zenbateraino egiten da ahalegina? Galdetu, jakin, hausnartu...
· Udalek eta erakunde publikoek bermatzen al dute zerbitzu publikoa eskaini behar dieten enpresek euskara ezinbestekoa izatea? Legez noraino da zilegi? Ba al dakigu ezer horri buruz? Zein da egin den bidea?

ALORRA:

HORNITZAILEAK

Helburua:

Herritarrek zein erakunde publikoek zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Aztergaiak:

Fakturak, jakinarazpenak, publizitatea eta zerbitzu hizkuntza.

Enemua:

etxea, enpresak edo negozioak eta erakunde publikoak.

Arrua:

Erakunde publikoena, baina baita pertsonala ere.

Urratsak:

- Hornitzaileei fakturak, jakinarazpenak eta zerbitzua euskaraz jaso nahi dugula jakinaraztea.
- Zerbitzua hautatutako hizkuntzan jaso ezean, hornitzailea aldatzea eta aldaketaren arrazoia jakinaraztea.
- Kanpaina publikoak eta bateratuak.



I+D
IDEIAK

- Hornitzaile guztiei fakturak eta jakinarazpenak euskaraz bidaltzeko eskatu, bai pertsonalki, eta bai udalaren izenean.

- Herri mailan kanpaina egin, hornitzailearen bati (edo argindar konpainiari) fakturak eta jakinarazpenak euskaraz bidaltzeko eskatuz. Epe zehatz batean lortu ezean, hornitzailea aldatzeko kanpaina ere egin daiteke, hizkuntzarekin lotutako arrazoiak nabarmenduz.

- Euskarazko kontratuak eta fakturak eskatu telefono konpainiei, bankuei eta gainerakoei ere.

- UEMAK, udalek eta beste zenbait erakundek doan banatzen dituzten faktura-takoak eta antzekoak banatu zerbitzu sektorean.

8. ZERBITZU PUBLIKOAK

AZTERTZEKO ARLOAK

Herritarrek, askotariko arrazoiengatik, harreman estua eta iraunkorra dute zerbitzu publiko askorekin. Udalarekin edo udalen edozein sailekin, Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, ogasunarekin, osasun-etxearekin, familia medikuekin edo erizainekin, udaltzainekin, poliziarekin... eta erakunde publikoen meneko hainbat eta hainbat zerbitzuekin.

Herritar gisa, euskaraz aritzen al gara horietan guztietan? Euskaraz aritzen ez bagara, zergatik da? Erakunde gisa, berriz, nola lantzen dugu hau guztia? Bermatuta al dago zerbitzu hizkuntza euskaraz izatea?



ISPILUARI BEGIRA

HERRITARRAK: HIZKUNTZA OHITURAK ETA ESKAERAK

Erakunde publikoekin dugun harremana, eskaerak eta baimenak kudeatzeko egiten ditugun idatziak, ogasunarekin, medikuekin edo poliziarekin dugun harremana, zein hizkuntzatan da?

GALDERAK:

- > Noizbait pentsatu al dut zein hizkuntzatan jasotzen ditudan edo eskatzen ditudan zerbitzu publikoak?
- > Euskaraz egiten al duzu errenta aitorea?
- > Euskaraz aritzen al naiz osasun-etxean familia-medikuekin edo erizainekin?
- > Izan al dut noizbait arazorik euskaraz aritu nahi izan dudalako? Idatziren bat aurkezterakoan, poliziarekin hitz egiterakoan, osasun-etxean edo beste nonbait?

ERAKUNDE PUBLIKOAK: AHULGUNEAK ETA KONPONBIDEAK

Zenbait erakunde publiko gogor ari dira herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko ahaleginean. Baita beste erakunde publiko batzuei belarritik tiraka ere, beste horiek hutsune nabarmenak dituztenean.

GALDERAK:

- > Udalak bermatzen al die herritarrei nahi duten hizkuntza hautatzeko eskubidea? Euskaraz aritu al daiteke herritarra Udalarekin eta Udalaren baitako sailekin?
- > Herritarrak gainerako erakunde publikoekin euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenean, zein da Udalaren jarrera? Begirale hutsa ala arazo konpontzeko bidelaguna?
- > Udaltzaingoaren txostenak, isunak eta antzekoak euskaraz bideratzen al dira?
- > Zein da erakunde publikoen arteko hizkuntza?
- > Zenbait erakunde publikok gazteleraz eskatzen dituztenean baimenak, agiriak eta gainerakoak, zein da Udalaren jarrera? Adibide bakan bat jartzearren: Espainiako Gobernu ordezkariari bidali behar izaten zaion su artifizialak botatzeko baimen eskaera eta segurtasun plana. Gazteleraz jaso ezean baimenik ez datorrenean, nola jokatzeko du Udalak?
- > Udalerrri euskaldunen artean ba al da koordinaziorik gai hauen inguruan? Elkarren artean, Foru Aldundian, UEMAn...



ERAGIN BURUARI

HERRITAR GISA

- Ematen al diozu garrantzirik erakunde publikoekin edo hauen baitako zerbitzuekin euskaraz aritzeari?
- Gogoan al duzu arazo nabarmenik euskaraz aritzeko eskubideari eutsi izan diozulako? Horrela baldin bada, lortu izan al duzu euskaraz aritzea azkenean?
- Non izan duzu arazo gehien? Osasun-etxean, poliziarekin kalean, epaitegian, unibertsitate publikoan...
- Euskaraz jasotzen al dituzu Udalaren jakinarazpenak, erreziboak (kiroldegiko kuota, ohiko zergak...) eta antzekoak?
- Gurasoa bazara, euskaraz erregistratu al duzu epaitegian zure seme-alaba?
- Euskaraz egiten al duzu errenta aitortpena?

ERAKUNDE PUBLIKO GISA

- Arazorik izan al du udalak euskararen aldeko hizkuntza politika aurrerakoia egin nahi izateagatik?
- Herritarren eskubideak urratzen dituzenean beste erakunderen bategen, zein da Udalaren jarrera? Ba al du gaia konpontzeko protokolorik?
- Elebide, Behatokia, Euskararen Telefonoa eta antzeko zerbitzuekin zein harreman du Udalak?
- Baimenak eta antzekoak kudeatzerakoan, hizkuntza irizpideak kontuan hartzen al dira?
- Udalaren baitako erabilera planak eta hizkuntza irizpideak zenbaiteraino ezagutzen ditu herritarrak? Eta udal langileek? Eta udal ordezkariak? Euskara zeharlerrotasunez lantzen al da Udalaren politikan?

ALORRA:

ZERBITZU PUBLIKOAK

Helburua:

Erakunde publikoek eskaintzen dituzten zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea herritarrei.

Aztergaiak:

Erakunde publikoak eta hauen meneko zerbitzuak.

Eremua: udal zerbitzuak, osasun-etxea, polizia, ogasuna, gizarte zerbitzuak...

Ardua: erakunde publikoena, batez ere.

Urratsak:

- Herritarrekin euskaraz aritzeko zailtasunak dauden kasuetan, herritarrari eskubidea bermatuko dion konponbidea eskaintzea.
- Beste erakunde publikoren batek eskubidea urratzen duenean, erakundeen arteko elkarlana egoera konpondu ahal izateko.



I+D
IDEIAK

- Mediku euskalduna eskatu, pertsonalki zein kolektiboki.
- Epaitegiko eta ogasuneko tramite guztiak euskaraz egin: haurrak erregistratu, ezkontza zibilak, errenta aitortpena, eta antzekoak.
- Polizia-etxeetan, osasun-etxean edo epaitegian ere euskaraz aritzeko eskubideari eutsi.
- Udalaren hizkuntza irizpideak ezagutarazi herriko talde eta elkarteei, euskara lehenetsi dezaten.

9. ETXEKO HIZKUNTZA

AZTERTZEKO ARLOA

Etxeko ohiko hizkuntza aztertzea da asmoa. Bikotearekin, gurasoekin, seme-alabekin... Euskaraz aritzen al gara? Zein da etxeko betiko hizkuntza? Izan al da hizkuntza ohituren aldaketarik etxean?

Solasaldiez gain, euskara ohiko hizkuntza al da etxean? Irratia edo telebista piztuta ditugunean etxean, zein da ohiko hizkuntza? Etxera heltzen diren egunkari edo aldizkariak zein hizkuntzatan daude?



ISPILUARI BEGIRA

ETXEKO OHIKO HIZKUNTZA: SOLASALDIAK, IRRATIA, TELEBISTA, IRAKURGAIAK...

Bikotearekin, gurasoekin edo seme-alabekin dugun harremanean funtsezkoa da hizkuntza, hizkuntza bakoitzak bere mundu ikuskerara duelako. Etxeko hizkuntzaren inguruan hausnartzeko zenbait galdera dira honakoak:

GALDERAK:

- > Bikotearekin, pisukideekin, gurasoekin edo seme-alabekin, zein da etxeko ohiko hizkuntza?
- > Izan al da aldaketarik hizkuntza ohituretan?
- > Seme-alabak dituzten gurasoen kasuan, seme-alabek ekarri al dute aldaketarik etxeko hizkuntzan?
- > Etxean ba al dugu irratia entzuteko ohiturarik? Zein hizkuntzatan?
- > Telebista, oro har, euskaraz ikusten al dugu?
- > Ba al dugu hizkuntzaren eta kulturaren transmisioaren inguruko kontzientziarik? Euskal musika, bertsolaritza, literatura... ezagutarazten al diegu seme-alabei edo etxekoei? (beste kontu bat da guk ere ezagutzen ote ditugun).
- > Zein egunkari edo aldizkari irakurtzen da normalean etxean? Euskaraz al da?
- > Jolasak, mahai-jokoak eta antzekoak hautatzen ditugunean, euskarazkoak al dira?



ERAGIN BURUARI

Euskara, munduari begiratzeko leihoa

· Euskarak berarekin dakar euskal kultura eta mundu ikuskera zehatz bat ere. Etxean erdaraz aritzen garenean, beste modu bateko kultura eta ikuskera lehenesten dugu. Euskaldunak garenez, gure mundua, errealitatea eta ikuskera partekatzeko, ez dago euskaraz aritzea bezalakorik. Aldamenekoari daukagun onena emateko modua ere bada euskaraz aritzea. Euskaraz egitea. Euskara erakustea. Ahalegintzeko erraztasunak eta bitartekoak eskaintzea. Gehien maite ditugunak euskarara ekarrita, egin diezaiekegun opari ederenetakoa ari gatzaizkie egiten.

Irratia, egunkariak, aldizkariak

· Euskarazko eskaintza lehenetsi etxean ere. Bertako hizkuntza eta mundu ikuskera dakarte euskarazko hedabideek.

Oherako ordua

· Euskarazko ipuinak eta abestiak hautatu haurrak lokartzerakoan.

ALORRA:

HEDABIDEAK

HELBURUA:

Etxeoko ohiko hizkuntzaren inguruko hausnarketa egitea, eta ahal balitz, hizkuntza ohitura aldatzea euskara lehenesteko.

AZTERGAIAK:

Etxeoko ohiko solasaldiak, irratia, telebista...

Eremua: etxea, familia.

ARBURA:

Pertsonala.

URRATSAK:

- Euskaraz egin etxeokoen.
- Euskarazko irratia eta telebista kateak lehenetsi.
- Euskarazko jolasak, abestiak eta ipuinak hautatu, haurrekin jolasteko edo haurrak lokartzeko.



I+D
IDEIAK

- Etxean euskarazko egunkariak eta aldizkariak ohikoak direla ikusarazi haurrei eta gazteei.

- Euskarazko ipuinak eta abestiak hautatu haurrak lokartzerakoan.

- Euskarazko marrazki bizidunak, pailazoak edo saioak hautatzen lagundu haurrei, telebistan, DVDetan zein internet bidez dagoen eskaintzarekin.

- Euskarazko irratia eta telebista kateak lehenetsi.

10. KULTURA

AZTERTZEKO ARLOA

Kultur ekimenak eta produktuak zein hizkuntzatan gozaten ditugun hausnartzea da atal honen helburua.

Euskaldunak izan arren, zein hizkuntza hautatzen dugun liburuak irakurtzeko, filmak edo antzezlanak ikusteko, musika entzuteko, hitzaldietarako eta antzekoentarako.



ISPILUARI BEGIRA

KULTUR KONTSUMOA: LIBURUAK, FILMAK, MUSIKA, ANTZERKIA, HITZALDIAK...

Kultur ekoizpenei dagokienez, zein hizkuntza hautatzen dugun aztertu nahi dugu. Zergatik egiten dugun egiten dugun hautua, euskaraz aritzen garen, ala errazago jotzen dugun beste hizkuntza batzuetatik heltzen zizkigunetara.

GALDERAK:

- > Ezagutzen al dugu gaur egungo euskal sorkuntza?
- > Euskarazko musika entzuten al dut?
- > Zinema, euskaraz ikusten al dut normalean? Urtean zehar ikusten ditudan filmen ehuneko zenbat da gutxi gorabehera euskaraz?
- > Zergatik ez dut euskarazko film gehiago ikusten? Eskaintza faltagatik, ala erdaretara jotzeko ohituragatik?
- > Euskarazko liburuak irakurtzen al ditut oro har? Beste hizkuntzetara jotzen baldin badut irakurtzerakoan, ez da eskaintza faltagatik. Zergatik da orduan?
- > Antzerkira joateko ohiturarik baldin badut, euskarazko antzezlanak ikusten al ditut normalean?
- > Bertsozalea al zara? Ba al duzu ohiturarik zure herrian edota zure herritik kanpo antolatzen diren bertso saioetara joateko?
- > Telebistan zein irratan askotarikoak dira kulturarekin lotutako saioak (telebista edo irrati kate batzuetan besteetan baino gehiago, argi dago). Ba al duzu saio horiek ikusteko eta entzuteko ohiturarik? Ikusten edo entzuten badituzu, oro har zein hizkuntzatakoak hautatzen dituzu?



ERAGIN BURUARI

LIBURUAK

- Zein da irakurri duzun euskarazko azken liburua?
- Ezagutzen al dituzu gaur egungo euskal idazleak?
- Zure herrian ba al da euskal idazlerik? Irakurri al duzu bere liburu-rik?

Zinema

- Euskarazko filmak non ikusten dituzu oro har? Zineman, telebistan ala internet bidez eskuratuta?
- Ezagutzen al duzu euskarazko azpigituluak eskaintzen dituen *azpigituluak.com* webgunea edo antzekoren bat?

Musika

- Zein da erosi duzun euskarazko azken diskoa?
- Zure herrian izaten al da euskarazko musika zuzenean antzuteko aukerarik?

Antzerkia

- Ba al duzu euskarazko antzezlanak ikusteko ohiturarik? Herrian bertan izaten duzu aukera, ala kanpora joan behar izaten duzu?

Bertsolaritza

- Gustukoa al duzu bertsolaritza? Bertso saioetara joateko ohitura ba al duzue? Herrian bertan izaten al duzu bertso saioak entzuteko aukerarik? Telebistan ala interneten jarraitzen al dituzu saioak?

ALORRA:**KULTURA****Helburua:**

Maila pertsonalean zein kolektiboan kultura zein hizkuntzatan kontsumitzen dugun hausnartzea, eta ahal bada hizkuntza ohiturak aldatzea, euskarazko ekoizpenak gailendu daitezten.

Aztergaiak:

Liburuak, filmak, diskoak eta kontzertuak, hitzaldiak...

Eremua: etxea, zinema, kultur etxeak eta areto publikoak...

Ardura:

Pertsonala zein erakunde publikoena.

Urratsak:

- Euskarazko kultur eskaintza ezagutzeko ahaldundu herritarrek.
- Hainbat udalek eta euskara elkartek egin izan duten moduan, herriko musika taldeak, herriko musika taldeen historia, herriko idazleak, bertsolariak eta herriko sortzaileak ezagutzeko ekimenak, webguneak, liburuak eta antzekoak sortu, lagundu, zabaldu.



I+D
IDEIAK

- Herriko sortzaileen lana ezagutarazteko ekimenak antolatu: disko edo liburu berriren bat aurkezten dutenean, herritarren aurrean ere aurkezteko aukera eman.

- Herriko sortzaileen lana ikusarazteko askotariko ekimenak egin daitezke: txikitik handira, errazenetik zailenera. Herriko taldeen kontzertua, herriko idazleen liburu aurkezpenak, herriko sortzaileak eskoletara eraman hitz egitera, sari banaketetan herriko sortzaileen ekoizpenak banatu sari gisara, webguneak sortu, herriko kultur eskaintzan edo jaietan herriko taldeak eta sortzaileak lehenetsi...

- Euskarazko musika gailendu dadin kanpaina egin herriko tabernen artean. Gutuna bidali, CDren bat prestatu eta tabernetan banatu...

11. Ezina ekinez egina

AZTERTZEKO ARLOA

Euskaraz aritu nahi dugunean, baina ezin dugunean, badugu ezintasuna indar eraldatzaile bihurtzeko aukerarik.

Eragiteko eta egoera aldatzeko hainbat bitarteko daude, erakunde publikoek zein euskalgintzak sortutakoak. Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Elebide, Euskararen Telefonoa, Akuilari eta antzekoak lagungarriak izaten dira pertsonalki bizi izan duguna aztergai bihurtu eta egoera aldatzeko baliagarria izan dadin. Herri-tarrei horien berri ematea ere garrantzitsua da euskaraz aritzeko ezintasuna indar eraldatzaile bihurtu dadin.



ISPILUARI BEGIRA

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK: Elebide, Euskararen Telefonoa, Akuilari, Hizkuntz Eskubideen Behatokia...

Arazo zehatz baten aurrean, errazena eta ohikoena, udalera jotzea da. Udalaren Euskara sailak edo zerbitzuak kasuaren berri izan dezan, eta konponbidea bilatzen ahalegindu dadin. Udalaz gaindi, ordea, badira beste hainbat zerbitzu ere, euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzeko lagungarriak direnak.

GALDERAK:

- > Ezagutzen al duzu hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzurik?
- > Erabili al duzu noizbait?
- > Erabili baduzu, baliagarria izan al zaizu egoera iraultzeko eta egoera konpontzeko?
- > Jokabide egokiak nabarmentzeko, ezagutarazteko eta txalotzeko bitartekoak ere badira. Ezagutzen al dituzu? Erabili al duzu horietakoren bat inoiz?



HAINBAT BITARTEKO

Udalaren Euskara zerbitzua edo saila

- Hurbilena edo ezagunena da herritarrarentzat. Bertan jaso dezake aholkularitza eta laguntza.

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

- Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak sustatu eta bideratutako fundazioa. Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan babestera zuzentzen du bere jardura.
- **behatokia.eus** / telefonoa@behatokia.eus / 948 146 172 / 627 524 782

Euskararen Telefonoa

- Behatokiaren doaneko zerbitzua da. Hizkuntza eskubideen urraketari konponbidea emateko tresna da.
- 948 146 172 / **euskararentelefonoa.com**

Elebide

- Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bideratutakoa. Eskaera edo kexen kudeaketa, informazioa eta aholkularitza.
- **euskara.euskadi.eus/r59-aleb/eu**

Akuilari

- Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren aplikazioa. Hizkuntza eskubideen urraketari erantzuteko zein hizkuntza jokabide egokia duten entitateak nabarmentzeko.
- Sakelakoetarako ohiko aplikazio zerbitzuetan eskuragai dago.
- **akuilari.eus**

ALORRA:

BITARTEKOAK

HELBURUA:

Herritarrek edo erakunde publikoek euskaraz egin ezin dutenean sortzen den ezina indar eraldatzailea bihurtzea, egoera iraultzeko eta konpontzeko dauden bitartekoak ezagutaraziz.

AZTERGAIAK:

Euskara zerbitzuak, Behatokia, Elebide, Euskararen Telefonoa, Akuilari...

URRATSAK:

· Hizkuntza eskubideak bermatzeko erakunde publikoek zein euskalgintzak sortutako bitarteko ezberdinak ezagutzera eman herritarren artean.



I+D
IDEIAK

- Hizkuntza eskubideak urratzen direnean, bitartekoak erabiltzen hasi. Kasu pertsonala estatistiketan agertzeko eta konponbide estrukturala lortzeko bitarteko egokiak dira.

- Talde, elkarte eta negozioen hizkuntza jokabide egokia aitortzeko bitartekoak ere badira batzuk.

- baduzu.eus ere ezagutarazi: euskaraz kontsumitu ahal izateko aplikazioa eta webgunea.

IRIZPIDEAK eta ARGIBIDEAK

EUSKARALDIA UEMAKO HERRIETAN LANTZECO ZENBAIT IRIZPIDE ETA ARGIBIDE, UDALENTZAT ZEIN HERRIETAKO BATZORDEENTZAT

- Euskaraldiak landuko duen proposamena beharrezkoa eta interesgarria da, zalantzarik gabe, herriz herri euskalgintzaren, erakundeen eta herritarren artean sendotu daitezkeen zubiengatik eta hizkuntza ohituretan sortu daitezkeen aldaketengatik. Udalerrri euskaldunetan oro har euskaraz bizi garenez, ordea, hamaika egun horiek hausnarketarako baliatzeko gakoak eskaintzea eta ahulguneei aurre egiteko hamaika proposamen iradokitzea da orrialde hauen asmoa.
- Azken batean, Euskaraldia bideratzeko herrietan sortuko den mugimendua baliatuz, udalerrri euskaldunetan urrats bat gehiago egitea da asmoa, udalerrri euskaldunen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Horregatik landu du honako proposamena UEMAK. Udalerrri euskaldunearako ez ezik, beste udalerrietarako ere balio du, noski, baina udalerrri euskaldunetan hamaika pauso aurrerago joateko asmoari eta beharrari erantzunez sortutakoa da.
- Hainbat herrik gustura eta ilusio handiz heldu diote Euskaraldiaren erronkari. Beste batzuentzat, berriz, erronka zaila da, duten lanerako gaitasunaren arabera. Batzuentzat zein besteentzat, proposamen osagarria eta lagungarria izan nahi du honakoak.
- Udal edo batzorde bakoitzak erabaki beharko du, gaitasunaren eta beharren arabera, UEMAK proposatzen dituen hamaika alor hauei heldu, hausnarketa zein alorretan egin, eta bakoitzean landu daitezkeen kontuak zenbateraino landu. Bide horretan, gida edo mapa modukoa besterik ez dira orrialde hauek. Alor bakoitzean, hausnarketa, ideia eta proposamen gehiago eta hobeak ere sortu daitezke herrietan, hemen idatzitakoen osagarri.
- Izan ere, hamaika arlo eta proposamen hauetako bakoitzak, bere horretan, gaia nahi adina lantzeko aukera ematen du: apur bat soilik, azaletik, edota hilabete askoan lan sakona eginda.

· Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango da. Hamaika eguneko iraupena izango du, baina horrelakoetan ohi den bezala, ekimenak berak bezainbesteko garrantzia izango du bidean sortuko den guztiak: herritarren, eus-kalgintzaren eta erakundeen arteko elkarlanetik herrian sortuko diren zubi, talde eta dinamika berriak.

· Horregatik, Euskaraldia lantzeko herrietan sortu diren eta sortuko diren batzordeen esku jarriko du UEMAk gida hau, laguntza gisa, batzordeek nahi duten moduan lantzeko.

· Euskaraldia lantzeko batzorderik sortu ez den herrietan, berriz, udalak eskatuz gero, UEMAk bideratuko ditu Euskaraldia lantzeko sustapen saioak, dohainik. Azken batean, UEMAk teknikarien laguntza behar den kasuetan, UEMA prest dago azalpenak, argibideak eta lanerako irizpideak emateko, udal ordezkariekin zein herritarrekin egin daitezkeen aurkezpenetan.

· Euskaltzaleen Topagunearekin adostuta, UEMAk teknikariak berriazko formakuntza jasoko dute Euskaraldiari buruz, gero herrietan Belarriprest eta Ahobizientzako formakuntza saioak eskaintzeko. Beraz, formakuntza jaso nahi duten herrietara eta batzordeetara joango dira UEMAk teknikariak, Euskaraldiaren atarian herritarrek eta eragileak formatzeko eta ahalduntzeko.

· Euskaraldian parte hartzeko asmoa duten herriek, berriaz izena eman behar dute ekimenean. Horretarako, dagoeneko epea zabalik dago: **euskaraldia.eus** webgunean eman behar da izena, **martxoan amaitu baino lehen**.

· **UEMAko kide diren herriek, nahi izanez gero, UEMaren bidez eman ahal izango dute izena. Euskaraldian parte hartzea erabaki bezain laster, UEMari horren berri eman behar zaio, UEMAk eskaera bideratzeko. UEMaren bidez egin beharrean, udalen batek bere kontura eman nahi badu izena, ez dago inolako arazorik. Bi kasuetan, ordea, UEMari jakinaraztea eskatzen dizuegu, parte hartuko duzuen herrien berri izan dezagun.**

Bi kasuetan, *komunikazioa@uema.eus* helbidera idatzita edo 943 816699 telefonora deituta jakinarazi behar duzue egingo duzuen.

· Edozein zalantza argitzeko zein bidea egiten laguntzeko, herri bakoitzari dagokion UEMAk teknikaria prest izango duzue.



EUSKARALDIA



**EUSKARAK
365
EGUN**

Euskaraldia

- euskaraldia.eus
- info@euskaraldia.eus
- 946 215 780
- sare bideak: [@euskaraldia](https://twitter.com/euskaraldia)

UEMA

- uema.eus
- komunikazioa@uema.eus
- 943 816699
- sare bideak: [@uema_eus](https://twitter.com/uema_eus)



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**